

hiria



Iruñeak hainbat urte daramatza bizi-kalitateko adierazlerik hoberenak dituzten espainiar hiriburuetan sailkatuta. Haren hazkundera ordenatua izan da, berdegune zabalak ditu, eta eskaintza unibertsitario zabala zein kalitatezko osasun sistema ditu; faktore horiek, beste askoren artean, hiri abegitsua bilakatu dute, non herritarren asetasuna eta ongizatea handiak baitira. Bestalde, hiri ongi hornitua da, kirolerako, kulturarako, hezkuntzarako eta gizarte-laguntzarako. Eta horren guztiaren osagarri dira kaleetako segurtasun-maila handia, Espainiako langabezia-portzentajerik txikiena, Europako Batasuneko herrialde aurreratuenetakoen pareko per capita errenta eta etxebizitzaren eraikuntzako kalitate handia.

**Hiri berdea.** Parke eta lorategiek hiriko azaleraren % 20 hartzen dute, Iruñean. 500 arbola-espezietik gora daude, Arga ibaiaren parkean, Zitudadelan, Gaztelugibelen, Taconeran, Yamaguchin, unibertsitateetan edo Buztintxurin. Iruñeak, bestalde, konpromisoa hartua du garapen iraunkorren alde. Horren erakusle dira hainbat ekimen: Arga ibaiaren pasealekuaren moldaketa, panel fotovoltaikoen instalazioa ikastetxeetan, bizikletak alokatzeko udal-zerbitzua, kontsumo txikiko hiri-argiteria, 48,3 kilometroko bidegorria edo gurpilen pneumatiko birziklatuez egindako zoladurak.

**Abangoardiako hiria, osasungintzaren arloan** Osasun-langileen prestakuntzak eta ospitaleetako ekipamenduak erreferentzia bilakatu dute Iruñia, Espainian. Nafarroako Ospitalean abangoardiako ebakuntza kirurgikoak egiten dituzte. Bertan da, baita ere, Nafarroako Odol Transfusiorako Zentroa. Horrek Foru Erkidegoko ospitalak hornitze ditu. Bideko Ama Birjina ospitalean ama eta haurren zerbitzua dago. Erietxe Unibertsitarioak ospea du nazioartean, eta aitzindaria da medikuntza-aurrerabideetan. Bestalde, Ikerketa Mediko Aplikatuaren Zentroak (CIMA) ikerketa erabilpen klinikora hurbiltzen du, eta industria farmazeutikoarekin aritzen da elkarlean, sendagai berriak garatzeko. Iruñetik 10 kilometroira, Elkanon, Ubarmin erietxea dago, traumatologian eta errehabilitazioan espezializatua. Horrez gain, auzo guztiek osasun etxea dute, eta horrenbestez oinarrizko laguntza bermatua dute herritarrek orok.

**Hiri unibertsitarioa.** Nafarroako Unibertsitate Publikoak, Nafarroako Unibertsitateak eta Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionaleko zentro elkartuak 30.000 ikasle unibertsitarioak biltzen dituzte ikasturtero, existitzen diren unibertsitate-titulazio gehienak ematen dituztelarik. Horrek guztiak Iruñia biltzarren eta bilkura akademikoen egoitza bi-





laktzen du, ikerketa eta topaketa zientifikoak bultzatzen ditu eta, batez ere, herritarren hezkuntza-maila handitzen du.

**Hiri solidarioa.** Behartsuenendako laguntza hiriko auzo guztietan barna kokaturik dauden auzo-unitateen sarearen bitartez bideratzen da. Sare horretan, laguntza ematen zaie haien egoera pertsonala, familiarra edota soziala medio arreta berezia behar duten pertsonen. Horrez gain, Udalak baliabideak ditu, herritarretan behar bereziak dituzten multzo jakin batzuei laguntza emateko, hala nola minusbaliatuei, etxerik gabekoei, etorkinei eta bakarrik bizi diren adinekoei.

**Hiri abegikorra.** Iruñeak ia 200.000 biztanle ditu. Azken urteotan, Espainiako hiri askotan bezala, nabarmen hazten ari da etorkinen portzentajea. Hartara, 1996. urtean 3.126 ziren beste herrialde batean sortu eta Iruñean bizi ziren pertsonak. 2000. urtean 9.717 pertsona zeuden egoera horretan, eta 2008. urtean, ordea, 24.558 dira. Hau da, egun, Iruñean bizi direnen % 12,3 etorkinak dira. Erroldaturik dauden etorkinetan, ekuadortarrek, kolonbiarrek, bulgariarrek, peruarrek, boliviarrak, errumaniarrek eta portugaldarrek 1.000 biztanletik gorako multzoak osatzen dituzte. Etorkinen ehunekorik handiena duen auzoa Buztintxuri da, eta gero, Etxabakoitz,

Milagrosa, Sanduzelai eta Alde Zaharra datoz. Etorkinen ehuneko txikienetako auzoak Mendillorri, Txantrea eta Ermitagaña-Mendebaldea dira.

**Kultur hiria.** Iruñearen aurkezpena osatzeko, kulturaren, aisiaren eta denbora librearen esparruetan duen eskaintza zabala aipatu behar da: 130 instalaziotik gora, publikoak nahiz pribatuak. Aipagarri dira, baita ere, bertako azpiegitura eta komunikazio onak, bertako kaleak, interes historiko-artistikoko eraikinez beteak, harresiak, gastronomia, festak -nazioarte-mailako ospea duten Sanferminak- eta paisaien aberastasuna.

Iruñeko Udalak, horrekin konformatu beharrean, erronka berriei heldu die, hala nola teknologia berrien erabilera hedatzeaz, Iruñearen irudi turistikoa sustatzeaz, ekipamenduak lortzeri -beraietan abangoardiako azpiegiturak egokitzeko edota Iruña 2016an Europako kultur hiriburua hautatua izan dadin lan egiteari. Iruña, Donejakue Bideko derrigorrezko etapa izateaz gain, ederra da, tradizionala eta modernoa, dinamikoa, orekatua eta kultura. Hiri pribilegiatua, XXI. mendeko erronkei aurre egiteko prest dena.



## Biztanleria

Azken lau urteotan, urtean 1.000 lagun inguru hazi da Iruñeko biztanleria. Hazkunde demografiko horretan zeresanik izan dute hala hiriko biztanleriaren hazkunde begetatiboak (500 biztanle, urteko) nola immigrazioak (1.500 etorkin, urteko). Baina, inguruko herrietan egin dituzten etxebizitzaren eskaintza medio, hiriko biztanle ugari herri horietara joan dira bizitzera. Horrek guztiak eragin du hazkundean.

Iruñeko biztanleen sexu-proporzioa egonkor da aspaldidanik, eta hala segitu du azken urteotan. Emakume gehiago dago gizon baino, baina, betiere, parametro arruntak gainditu gabe.

Adinen araberako multzoek ere egonkor segitu dute azken urteotan, salbu 65 urtetik gorakoen multzoaren kasuan, horrek pixkanaka egin baitu gora.

Gazte-tasak (15-29 urte) behera egin du azken urteotan, nahiz etorkin gehienak gazte diren, 20 eta 45 urte bitartekoak, alegia. Gazte-tasak behera egiteko arrazoia jaiotza-tasan beherakada handia izan zuten adin-kohorteen lerratzean datza. Izan ere, jaiotza-tasaren beherakadak bi hamarraldi iraun zuen, 1980tik 2000ra. Mendekotasun-tasek egonkor segitu dute azken urteotan, % 0,45 eta % 0,48 artean.

Biztanleriaren egoera ezagutzeko beste adierazle garrantzitsu bat zahartze-indizea dugu, horrek 65 urtetik gorakoek eta 15 urtetik beherakoek arteko proportzioa ezartzen baitu. Orain Iruñean 65 urtetik gorako 1,36 lagun dago, 15 urtetik beherako lagun bakoitzeko. Hau da, zahar gehiago daude, haur baino. Eta biztanleriak zahartzeko joera erakusten du.

Azken urteotan jende asko iritsi da ehun urte betetzera. 2005ean, 164 lagun ziren ehun urtetik gorakoak, eta 2008an, 65 (ikusi dagokion eranskina).

Demografia-datuak aztertzerakoan, ezinbestekoa da immigrazioa aipatzea. Azken hamarraldian, etorkin asko etorri dira atzeritik Espainiara, Nafarroara, eta, horrenbestez, Iruñera ere. Orain 25.004 atzeritar daude erroldaturik Iruñean, hau da, Iruñeko biztanleen % 12,5. Iruñean, 125 herrietako pertsonak bizi dira, eta haien artean nagusi dira Hego Amerikatik, Europako Ekialdetik eta Afrikatik etorritakoak. Orain arte, etorkinen kopuruak gora egin du eten gabe, baina pentsatzekoa da oraingo krisialdi ekonomikoak eragina izanzen duela etorreraren erritmoan.

### IRUÑEKO DEMOGRAFIA ADIERAZLEAK, URTE BAKOITZEKO ABENDUAREN 31N NEURTUTA

Adierazleak	2005	2006	2007	2008
Gizonak / Guztizkoaren %	94.598/%47,9	94.305/%47,9	95.078/%48	95.745/%48
Emakumeak / Guztizkoaren %	102.759/%52,1	102.802/%52,1	103.083/%52	103.779/%52
0-14 urteko biztanleak / Guztizkoaren %	26.387/%13,37	26.534/%13,46	26.514/%13,38	27.243/%13,65
15-64 urteko biztanleak / Guztizkoaren %	135.526/%68,67	134.736/%68,35	135.366/%68,31	135.022/%67,7
65 urtetik gorako biztanleak / Guztizkoaren %	35.444/%17,95	35.837/%18,18	36.281/%18,30	37.176/%18,64
Gazte-tasa *	37.597/%19,05	36.183/%18,35	35.950/%18,14	35.089/%17,58
Mendekotasun-tasa (%) **	%0,45	%0,46	%0,46	%0,47
Zahartze-indizea ***	%1,34	%1,35	%1,36	%1,36
Atzeritarrak / Guztizkoaren %	21.566/%10,92	21.450/%10,88	23.991/%12,10	25.004/%12,53
<b>Población total</b>	<b>197.357</b>	<b>197.107</b>	<b>198.161</b>	<b>199.524</b>

\* 15 eta 29 urte bitarteko biztanleen ehunekoa, biztanleria osoan

\*\* 65 urtetik gorakoak + 14 urtetik beherakoak, 15 eta 64 urte bitartekoen aldean

\*\*\* 65 urtetik gorakoak / 14 urtetik beherakoak

#### 65 URTETIK GORAKOAK

<b>Urtea</b>	<b>Gizonak</b>	<b>Emakumeak</b>
2005	%39,5	%60,5
2006	%39,6	%60,4
2007	%39,7	%60,3
2008	%40,2	%59,7

#### 100 URTETIK GORAKOAK

<b>Año</b>	<b>Gizonak</b>	<b>Emakumeak</b>	<b>Guztira</b>
2005	30	134	164
2006	22	93	115
2007	18	72	90
2008	9	56	65

*“Iruñean, 125 herrietako pertsonak bizi dira, eta haien artean nagusi dira Hego Amerikatik, Europako Ekialdetik eta Afrikatik etorritakoak.”*

# Ekonomia-jarduna eta enplegua

## Ekonomia

2008an, Nafarroako ekonomiak % 1,9ko hazkundera izan zuen barne-produktu gordinean (BPG), hau da, Espania osokoa baino zazpi hamarren handiagoa, eta hazkundera hori ez da makala, krisialdia kontutan hartuta. Hala ere, urteko azken hiruhilekoan lehen aldiz egin du nafar ekonomiak behera, barne-produktu gordina % 0,8 murriztu delarik, aurreko hiruhilekoaren aldean. Baina honetan ere Nafarroako ekonomia hobe joan da Espainiakoa baino, horrek bi hiruhilekoan egin baitu behera, eta % 1eko berehakada izan duelako.

Hazteari uztearen arrazoiak familien kontsumoan izandako beherakadak ekarri duen eskaria-murrizketa eta

eraikuntzaren arloko jarduna behera etorri izana izan dira. Zehazki, 2008an % 3,5 murriztu zen merkataritza-jarduna, autoen matrikulazioak % 23,9 egin zuen behera eta etxebizitzaren salerosketa % 34,5 jaitsi zen, urtariletik azarora. Industriak, berriz, % 2,4 egin zuen behera, Espainian, batez beste, % 6,5 jaitsi zelarik. Bestalde, Nafarroako esportazioak % 11,7 hazi ziren azarora bitarte, eta Espainiakoak, bitartean, % 4,6 handitu ziren.

Langabeziari dagokionez, Nafarroak Espainiako tasarik txikiena zuen 2008ko bukaeran: % 8,12 (Espainiako batez-besteakoa: % 13,91). Kontsumoko prezioen indizea (KPI) % 1,2 zen, urtearen bukaeran.

JEZen alta emandako jarduerak	2004	2005	2006	2007	2008
<b>INDUSTRIA</b>					
> Erauzketa eta transformazioa	181	173	172	172	152
> Manufaktura-enpresak	352	356	336	321	310
> Elektrizitatea, gasa eta ura (ekoizpena eta banaketa)	15	18	18	18	21
<b>ERAIKUNTZA</b>					
> Eraikuntza	2.003	2.117	2.259	2.474	2.173
<b>ZERBITZUAK</b>					
> Handizkako merkataritza	498	489	474	469	447
> Txikizkako merkataritza*	4.886	4.877	4.768	4.693	4.647
> Ostalaritza: jatetxeak, kafetegiak eta tabernak	1.042	1.055	1.081	1.077	1.087
> Garraioa eta komunikazioak	1.145	1.117	1.172	1.118	1.058
> Finantza-erakundeak	254	251	264	263	252
> Higiezinaren arloko jarduerak	565	609	666	678	634
> Hezkuntza	194	198	202	204	198
> Osasun-jarduerak	122	134	141	142	148
> Profesional eta artisten lizentziak	3.608	3.613	3.555	3.517	3.529
<b>Total</b>	<b>14.865</b>	<b>15.007</b>	<b>15.108</b>	<b>15.146</b>	<b>14.656</b>

\* Sail horretan ez dira sartzen apaindegiak, ikuztegiak, tindategiak eta abar -halakoak ez baitira, hertsiki hartuta, merkataritza-jarduerak-, ezta merkataritza mistoa zein azalera handietakoa, prezioanitzeko bazarrak edota hipermerkatuak.



Eraikuntza, 2008an, gehien hazten ari zen sektorea izatetik Foru Erkidegoko sektore guztietan hazkunde-tasa txikiena edukitzera igaro zen: El sector de la Construcción en Navarra txostenaren arabera, sektore horren hazkundea % 0,9 izan zen 2008an, 1.762 milioi euroko balioarekin. Eraikitzaile Sustatzaileen Elkarteak (ACP), Merkataritza Ganberak, Obretako Eraikuntza Enpresen Nafar Elkarteak (ANECOP), Nafarroako Kontratisten Ganberak (CCN) eta Tasaciones y Consultoría elkarteak egindako txosten horrek dio 2007an etxebizitzaren eskarian hasi zen beherakada nabarmen areagotu zela iaz. Horretaz gain, txostenak azpimarratzen du 2008an 6.463 salerosketa-eragiketa izan zirela, eta horrek, 2007ko 9.634 eragiketen aldean, % 32,9ko beherakada egiten du.

Guztira, 31.600 pertsonak lan egin zuten eraikuntzaren sektorean, 2008an, hau da, 2007an baino 5.000 gutxiagok. Langile horietatik guztietatik, % 80k 25 eta 54 urte bitarte zuten, eta 55 urtetik gorako langileen proportzioa gainerako jarduera ekonomikoetan baino txikiagoa izan zen (% 10,8, % 12,1en aldean).

<b>Eraikitako etxebizitzak, emandako lizentzien arabera</b>	<b>2005</b>	<b>2006</b>	<b>2007</b>	<b>2008</b>
Eraikinetan	749	545	811	159
Familia bakarreko etxebizitzetan	22	15	14	3
<b>Guztira</b>	<b>771</b>	<b>560</b>	<b>825</b>	<b>162</b>



## > Ostalaritza-eskaintza

Ostalaritza-establezimenduen kopurua ia-ia ez da aldatu azken urteotan. Egun 16 hotel daude Iruñean, guztira 2.333 ohe dituztelarik. Bestetik, 8 ostatu daude, 134 oherekin, 45 ostatu-etxe, 498 oherekin, eta 4 turismo-bizitoki, zeinek beste 443 ohe eskaintzen baitituzte. Laburbilduta, Iruñeak ostatu hartzeko mota diferenteetako 73 establezimendu eskaintzen ditu, guztira 3.408 ohe dituztelarik.

Establecimientos	2005		2006		2007		2008	
	Establez. kop.	Ohe kop.	Establez. kop.	Ohe kop.	Establez. kop.	Ohe kop.	Establez. kop.	Ohe kop.
5 izar	–	–	–	–	1	87	1	87
4 izar	3	913	3	913	3	913	3	913
3 izar	9	1.210	9	1.210	9	1.210	9	1.210
2 izar	2	101	2	101	2	101	2	101
1 izar	1	22	1	22	1	22	1	22
<b>HOTELAK, GUZTIRA</b>	<b>15</b>	<b>2.246</b>	<b>15</b>	<b>2.246</b>	<b>16</b>	<b>2.333</b>	<b>16</b>	<b>2.333</b>
> Ostatuak	7	123	7	123	7	123	8	134
<b>OSTATUAK, GUZTIRA</b>	<b>7</b>	<b>123</b>	<b>7</b>	<b>123</b>	<b>7</b>	<b>123</b>	<b>8</b>	<b>134</b>
> Ostatu-etxeak (>**)	10	127	10	127	10	127	10	127
> Ostatu-etxeak (>*)	30	336	30	336	31	345	35	375
<b>OSTATU-ETXEAK, GUZTIRA</b>	<b>40</b>	<b>463</b>	<b>40</b>	<b>463</b>	<b>41</b>	<b>472</b>	<b>45</b>	<b>498</b>
> 3. klaseko apart. (giltza 1)	–	–	–	–	–	–	–	–
> klaseko apart. (2 giltza)	–	–	–	–	–	–	–	–
> klaseko apart. (3 giltza)	3	439	3	439	3	439	4	443
<b>TURISMO-APART., GUZTIRA</b>	<b>3</b>	<b>439</b>	<b>3</b>	<b>439</b>	<b>3</b>	<b>439</b>	<b>4</b>	<b>443</b>
<b>Ostatu-establezimenduak, guztira</b>	<b>65</b>	<b>3.271</b>	<b>65</b>	<b>3.271</b>	<b>67</b>	<b>3.367</b>	<b>73</b>	<b>3.408</b>

## > Enpresak sortzea

	2007	2008
Sortutako enpresak	44	56
Inbertsioa (milaka eurotan)	2.456.193	7.038.915

## Lan-merkatua

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak kudeatzen ditu Nafarroako Foru Erkidegoan garatzen diren enplegu-politikak. Programa-multzo horiek helburu jakin batzuk dituzte, hala nola enplegu betea, lan-kalitatea zein -produktibitatea eta gizarte-kohesioa indartzea.

2008aren bukaeran 11.201 langabe ziren Iruñean (5.765 gizon eta 5.436 emakume), hau da, urtebete lehenago baino 3.384 langabe gehiago. Langabeziaren gorakadak gehiago ukitu zituen gizonak emakumeak baino, eta sektore guztiak jo zituen, baina bereziki, eraikuntza, industria eta nekazaritza. Adinei dagokienez, langabe-tasa handienak gazteei dagozkie, hau da, 20 eta 29 urte bitartekoei.

### > Langabeziaren bilakaera

#### ABENDUAREN 31N ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA

Urtea	Nekazaritza eta arrantza	Eraikuntza	Industria	Jarduerarik gabeko sektorea	Zerbitzuak	Guztira
2005	69	733	1.276	479	5.664	8.221
2006	64	742	1.131	389	5.488	7.814
2007	59	789	1.059	373	5.537	7.817
2008	112	1.578	1.680	417	7.414	11.201

#### JARDUERA ETA LANGABEZIA TASAK, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA

Adina	2007. urtea						Año 2008					
	Jarduera-tasa			Langabezia-tasa			Jarduera-tasa			Langabezia-tasa		
	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
16-19	3.611	3.601	%7,49	110	68	%2,27	2.999	3.464	%7,64	200	93	%2,61
20-24	9.960	12.011	%22,8	304	258	%7,18	7.744	10.994	%22,1	645	405	%9,37
25-29	8.957	11.292	%21	491	481	%12,4	7.089	9.616	%19,7	911	630	%13,7
30-34	7.061	7.983	%15,6	487	596	%13,8	5.664	7.081	%15	945	744	%15
35-39	5.111	6.053	%11,6	391	620	%12,9	4.230	5.735	%11,8	839	727	%13,9
40-44	3.220	4.988	%8,5	338	544	%11,2	3.039	4.984	%9,49	665	646	%11,7
45-49	1.992	3.910	%6,13	264	430	%8,87	1.803	3.692	%6,50	491	509	%8,92
50-54	1.216	2.470	%3,83	249	550	%10,2	1.216	2.351	%4,2	371	574	%8,43
55-59	547	1.323	%1,94	342	657	%12,7	519	1.177	%2	418	713	%10
>59	416	453	%0,9	273	364	%8,14	509	581	%1,2	280	395	%6
<b>Total</b>	<b>42.091</b>	<b>54.084</b>	<b>96.175</b>	<b>3.249</b>	<b>4.568</b>	<b>7.817</b>	<b>34.812</b>	<b>49.675</b>	<b>84.487</b>	<b>5.765</b>	<b>5.436</b>	<b>11.201</b>

## > Enpleguaren bilakaera, sektoreka

KONTRATUAK, ABENDUAREN 31N

Urtea	Nekazaritza eta arrantza	Eraikuntza	Industria	Zerbitzuak	Guztira
2005	307	8.504	5.346	84.358	98.515
2006	324	8.832	5.927	79.927	95.010
2007	230	8.006	5.375	82.564	96.175
2008	371	5.824	5.839	72.453	84.487





> Iruñean egoitza duten enpresak,  
langile kopuruaren arabera sailkatuta

Langile- kopurua	2006	2007	2008
0 eta 2 bitarte	11.036	12.525	12.690
3 eta 5 bitarte	2.492	1.565	1.654
6 eta 9 bitarte	1.206	669	684
10 eta 19 bitarte	586	467	475
20 eta 49 bitarte	335	274	290
50 eta 199 bitarte	165	134	138
200dik gora	36	30	34
<b>Total</b>	<b>15.856</b>	<b>15.664</b>	<b>15.965</b>

